



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Datorren astelehenean egingo den kontzertuak duela 50 urte zendu zen Emma Chacón konpositorearen irudia eta obra aldarrikatuko ditu

- Eugenia Boix sopranoak, Annika Berscheid biolinistak, Susana G. de Salazar Ubis pianistak eta Mercedes Albaina dibulgatzaileak egile katalanaren lan bikain —baina ezezaguna— ezagutzera ematen dute.
- “50 años sin Emma Chacón” kontzertua martxoaren 7an izango da, astelehenean, 19:30ean, Arriaga Antzokiko foyerrean.

Bilbon, 2022ko martxoaren 4an. – Datorren astelehenean, martxoaren 7an, 19:30ean, Arriaga Antzokian, xede bikoitza duen kontzertua izango dugu: batetik, lehen mailako musika eskaini nahi du eta, bestetik, **Emma Chacón** egilea ezagutzera eman eta ikusarazi nahi du. Emma Chacón musikaren historiak (eta generoen arteko desberdintasunak) bere kalitateagatik merezi zituen fokuetatik eta arretatik aldentutako emakume konpositore ugarietako bat da.

Emma Chacón i Lausaca Bartzelonan jaio zen 1886an eta Bilbon hil zen 1972an. Musikarako dohain handiak zituen emakumea izan zen, pianista handia eta konpositore bikaina, eta bere obraren balioa, alderdi musikalarari dagokionez, haren edozein garaikiderena bezainbestekoa edo handiagoa da. Dena den, bere errepertorioa ez da oso ezaguna eta oso programa gutxitan sartzen dute. 2022an bere heriotzaren 50. urteurrena betetzen denez, efemeride oso egokia da bere obra arakatzeko eta entzuleei eskaintzeko.

Helburu horrekin etorriko dira datorren astelehenean Arriaga Antzokira **Eugenia Boix** sopranoa, **Annika Berscheid** biolinista, **Susana G. de Salazar Ubis** pianista eta **Mercedes Albaina** dibulgatzailea. Elkarrekin eskainiko dute kontzertua, Emma Chacónen legatura sakontasun handiagok begiratzeko aukera emango diguna. XX. mendeko konpositore handienetako baten legatura, alegia, haren musikak agertoki batean egon behar baitu, ez tiraderetan gordeta.

Emma Chacón-i buruz

Burgesiako gazte bati zegokion prestakuntza jaso zuen. Granadosen ikasle kuttun izan zen, eta harmonia, kontrapuntua eta konposizioa ikasi zituen. 1912an Jose Riberarekin ezkondu eta Bilbora etorri zen bizitzera, senarra Kataluniako ehungintza-enpresa bateko ordezkaria baitzen. Hurrengo urteetan, bederatzi seme-alaba izan zituen Emmak, baina ez zuen musika alde batera utzi. Hori bai, modu desinteresatuan jardun zuen beti, profesional izateko asmorik gabe.

Konposizioari ekin zionean, garai hartan emakume musikagileei «uzten» zieten generoa landu zuen: ahotserako eta pianorako abestia eta pianorako pieza laburra. Helduaroan, dena den, orkestra-konposizioen bat ere idatzi zuen. Emmak ez zion inoiz utzi pianoa jotzeari eta konposatzeari. Etxean, piano-gela zuen berak, eta pintura-gela senarrak. Emmak piano-gela hartan jardun zuen, eta baita irratian, ongintzazko kontzertuetan eta antzekoetan ere.

Emma Chacónen lanetako batzuk *Inéditas, la voz invisible de las compositoras* izeneko CDan daude jasota —2020an argitaratu zen—, eta horiek zuzenean entzuteko aukera izan genuen Bilboko Arriaga antzokian urte hartako martxoan. Orain, bere obran barrena sakonduko dugu.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 18 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus